

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Australiako rocka eta amorrua iragazi nahian

Euskal Herrian Australiako rocka errebendikatzen aitzindaria izan zen Ironic Cancer Phobia taldea. I.C.P.ren ostean, Luis Vilek punkyagoa zen Triturbo eratu zuen, baina handik aurrera bere proiektuari ekin zion, eta honako hau hirugarren lana da. Ibilera honetan ere antzema-

ten zaio antipodetako rock gordina maite duela, baina askoz modu pausatuagoan jorratzen du: rocka eta garagea tamainan dauden arren, Nick Cave eta antzekoen erritmo geldo baina intentsoak lantzen ditu. Gainera, Vilen ahots grabeak eta abestiei ezarritako kutsu ilunak giro bereziak sortzen dituzte, deserosoagoak. Metaforaz eta sinbolismoz jositako hitzetan giza kontrolari, kutsadurari, emakumeen kontrako tratu txarrei, edertasun estereotipoei eta potentzia handiek ezarritako terrorismoari abesten die oso era landu eta ezohikoan.



Sapos y culebras

Luis Vil &
La mala crianza

LUIS VIL RECORDS

Iraupena: 40'36"
8,95 euro

LUIS VIL

«Gaur egun rocka guztiz inofentsiboa da. Lehen musikariak atxilotzen zituzten, baina orain Grammyak ematen dizkiete»

Zein da Luis Vil, beste batzuek ikusi nahi ez dutenari erreparatzen dion ameslaria?

Estepako otsoa naiz, rocka maite duena. Musika egiteaz gain, eragiten didanaren gainean idazten dut: gizartearen kontraesanak, politika eta mundua mugitzen duten gauzak. Ez dut mundua aldatu nahi, baina jendea iratzartzeko-edo enkriptatutako flashak bidaltzen ditut.

Abestiak idatzi eta grabatzearen arrazoi nagusia da zure barneko premia asetzea?

Kim Salmonek esango lukeen moduan rocka purga eta erredentzioa da. Maitasun, gorroto, ihesbide, zoriontasun edo pena premia dutenek musikaren bidez askatzen dituzte. Ni hunkitzen nauena da bazterrak astintzea eta barruan daukadan pozoia botatzea. Nire buruarekin askoz gusturago sentitzen naiz, nahiz eta jakin horregatik askok bizkarra ematen didatela. **Inoren lurtean zaudela uste duzu? Rockeroa, baina kutsu ilunarekin eta hitz gordinekin...**

Bai, hala ikusten dut nire burua, baina ez dut aldatzeko asmorik. Gaur egun rockaren inguruan dagoenak atzera egiten dit. Sistemak underground edo alternatiboa irentsi, eta moda, negozio, oportunismo eta intereseekin nahastu du. Ez ditut talde berriak jarraitzen, eta ez naiz rockaren zirkuituetan mugitzen...ez dudalako ospearekin amets egiten.

Rockak iraganeko "arriskua" galdu du?

Gaur egun rocka guztiz inofentsiboa da. Aspaldi MC5, Jim Morrison eta beste asko atxilotzen zituzten egiten zutenagatik; gaur egun, berriz, Marilyn Mansoni Grammyak ematen dizkiote. Beasts Of Bourbon taldeak, adibidez, oraindik arrisku kutsua badu; ezinbestekoa da alienatutako monotoniarekin apurtzeko.

Telebista zure obsesioa da?

Nire belaunaldiak telebista izaera kritikoarekin mundua ulertzen lagun zezakeen gailutzat zuen. Baina gaur egun telebista ikusleak manipulatzeko gailu oso garrantzitsua da iragarki, albistegi edota filmen bidez.

